

Pobrezia eta gizarte-laguntza XVIII. mendean Bizkaian

Juan Gracia
EHUko irakaslea

Lan honen hasieran Bizkaian XVIII. mendean izandako pobreei buruzko aspektu kuantitatiboak aztertzen dira. Ondoren, behartsuen eguneroko bizimoduak analizatzen dira, euren famili-harremanak, lan-iharduerak eta agintarien kontrako jarrerak ikertuz. Era berean pobreei buruz gainerako sektore sozialek izandako mentalitateak analizatzen dira, Bizkaiko elite politikoak eta herriak erakutsitako mentalitateak guztiz tradizionalak zirela azpimarratuz; euskal ilustratu burgesek behartsuei buruz idatzi zutena aldiz, pentsamolde moderno baten adibidea dela baieztatzen da. Azkenengoz, pobreek edukitako gizarte-laguntza ikertzen da. Aspektu honi dagokionez, ospitaleek eta udal erakundeek behartsuei eskainitako gizarte-laguntza tradizionala eta hospizioetan garatutako gizarte laguntza modernoagoa kontrajartzen dira, azken erakunde hauetan pobreziaen aurkako garaiko ekintzak agertuz.

The quantitative aspects referring to the existing poor people in Biscay during the XVIIIth century are firstly studied in this paper. Afterwards, we analyse the ways of life of poor people, studying their family relationships, labour activities and attitudes toward authorities. Mentalities of social groups in respect to poor people is also analysed, distinguishing character of the traditional mentality of the political elite and the popular groups in Biscay from the bourgeois thinkers of the Basque Enlightenment. Finally we study the social welfare offered to poor people. In this way, the traditional welfare proportioned by hospitals and municipal institutions is compared to the most modern welfare which was offered by poor houses where a contemporary treatment against poverty has already started.

Artikulu honen gaia zuzenki jorratu baino lehen, aurretiaz zenbait zehaztasun historiografiko egitea komenigarria delakoan gaude. Baten batek pobrezia buruzko historiografia azken urteotan bakarrik agertu dela pentsa badezake ere, historiografia honek tradizio handia duela baieztatu behar da. Era honetan, XIX. mendearen bukaeran eta XX. mendearen hasieran Europako zenbait lurraldetan pobrezia buruzko ikerketa historiografiko eta teoriko batzuk argitaratu ziren¹. Jakina, garai hartan normala zenez, historiografia hori testuinguru positibista eta kontserbadoreari zegokion. Honela, historiografia horrek pobre eta baztertuen portaerak erabat mesprezatzen zituen, aldi berean elite eta burgesiak behartsuen alde sortutako erakundeak goiraipatuz.

Hala eta guztiz ere, XX. mendearen hasierako hamarkadetan historialariek pobrezia buruz ezer gutxi ikertu zuten, eta azken hogeitaz urteotan agertu da berriro ere historiografian gai hau. Azken interes historiografiko hau azaltzeko, XX. mendean zehar historiografiak izandako bilakaera kontutan hartu beharrean gaude. Modu honetan, Bigarren Mundu-Gerraren ondoren, historiografia positibista eta tradizionala gainditzen hasi zen bitartean, historiografia estrukturala izene-koak gero eta arrakasta handiagoa

lortzen zuen. Historiografia positibistak, eliteak osatzen zituzten pertsonak (erregeak, ministrariak, ospe handiko militarrek...) eta beraiek burututako ekintzak (barne-politika, hitzarmen diplomatikoak, gerrateak...) ikertzen zituen. Historiografia estrukturalak, berriz, gai sozialak, demografikoak edo ekonomikoak aztertzen zituen. Honez gain, historiografia estrukturalak elitea analizatu beharrean, herria osatzen zuten sektoreak (nekazariak, langileak...) ikertzen zituen batik bat; horrela sortu zen *History from below* ospetsua. Historiografia estruktural honetan herri-talde sozialak aztertu ostean, azkenengoz 70.eko hamarkadan ohizko historiografian baztertuak izandako sektore batzuei iritsi zitzaizen txanda. Honela, emakumeei, heterodoxoei edo pobreei buruzko historia garatzen hasi zen.

Pobrezia dagokionez, 70.eko hamarkadan *l'école des Annales* izenekoaren barruan gai honi buruzko hainbat liburu agertu zen, eta Frantziako historiografian ikerketa-mota hau modan jarri zen². Egia esan, moda hau guztiz iragankorra izan zen, eta Frantziako azken hamar urteotan gai historiografiko honi buruzko interesa gero eta txikiagoa izan da. Ingalaterran, berriz, pobrezia buruzko historiografiak ez zuen sekula Frantziako edukitako garrantzia lortu, baina ikerketa interesgarri batzuk burutu ziren eta gaur egun ere liburu eta

1. Historiografia zahar honen adibide esanguratsu batzuk honako hauek izan daitezke: Frantziako dagokionez, Hubert-Valleroux 1980, Bloch 1908, Lallemand 1902; Ingalaterrari dagokionez, Fowle 1881, Leonard 1900, Nicholls 1902, Aydelotte 1913, Webb 1927; azkenengoz, Espainia eta Italiari dagokionez, Hernández Iglesias 1876, Faraggiana 1908, Luchini 1894. Zerranda hau zeharo luza liteke, garai hartan gizarteak, eta honen ondorioz idazle eta historialari askok, gai honi buruzko arduraren handia erakutsi zutelako.

2. Historiografia honen laburpen bibliografiko adierazgarri bat ezagutzeko, ikus Jones 1982: 290-306.

artikulu erakargarriak argitaratzen jarraitzen dute³. Italia⁴ eta Espainari⁵ dagokienez, pobreei buruzko historiografia nahiko berria da, eta pasa den hamarkadan bakarrik eman ditu bere lehenengo fruituak.

Sarrera historiografiko labur hau egin ondoren, izenburuan agertzen den gaia analizatzen hasiko gara⁶. Gai honi buruz ikertzerakoan, aurreneko galdera bat egin daiteke, alegia, zenbat behartsu zegoen garai hartako Bizkaian. Galdera honi erantzun zehatza ematea zaila dela azpimarratu beharrean gaude, XVIII. mendeko demografi agirietan agertzen diren talde sozial honi buruzko datuak –urriak izateaz gain– oso fidagarriak ez direlako. Hala ere, XIX. mendearen hasierari dagokionez, Bizkaian bizi ziren eskale eta pobreei buruzko errolda interesgarri batzuk aurki daitezkeenez, zenbait datu adierazgarri eman daiteke.

Errolda hauek oinarritzat hartuta, bertako behartsuek (*pobres naturales* zeritzatenak, hots, bere herrian bizi zirenak) pobreen % 80a suposatzen zutela aipa daiteke. Argi ikusten denez, behartsu kanpotarrek (*pobres forasteros* zeritzatenak, alegia, bere herritik kanpo mugitzen zirenak) pobreen gutxiengoa baino ez zuten suposatzen. Datu hau kontutan hartzea ga-

rrantzitsua da, gero ikusiko dugun legez, Bizkaiko elite politikoak zeuzkan pentsamoldeetan oso iritzi ezberdina hedatu baitzen. Populazio behartsuaren egitura soziodemografikoa aztertzen jarraituz gero, beste datu adierazgarri batzuk eman daitezke; alegia, bertako pobreei zegokienez, gehienak emakumezkoak ziren (% 55a). Ordea, behartsu kanpotarrak analizatzean oso egoera bestelakoa agertzen da, haien artean gizonezkoak % 65a zirelako. Ezberdintasun hau nahikoa era erraz batean azal daiteke, askotan behartsu kanpotarrak arlosteak zirela kontutan hartzen badugu, aro hartako gizartean herriz herri eske ibiltzeko gizonezkoek emakumezkoek baino askoz aukera gehiago baitzeukaten.

Beste alde batetik, behartsu guztiak –nahiz bertakoak nahiz kanpotarrak– analizatuz gero, gehienak emakumezkoak zirela (hain zuzen ere, % 65a) aipatu beharrean gaude. Datu hau azaltzeko gizarte hartako emakumeen ezaugarri batzuk aintzat hartu ahal dira, hots, emakumezkoak gizonezkoak baino urte gehiagoz bizi ohi zirela, aldiberean lan egiteko aukera gutxiago izanez. Testuinguru horretan, alargun anitz pobre bihurtu zela uler daiteke, eta zenbait kasutan bizi ahal izateko limosna eskatzea izan zen bere aukera bakarra.

3. Azken urteotan Ingalaterran pobrezari buruz agertutako ikerketa interesgarriak Slack 1988 liburuan isladatzen dira.

4. Italiako historiografia honek gauzatutako azken liburu interesgarrienak honako hauek dira: Onger 1993 eta Monticone 1993. Liburu hauetan pasa diren urteotan Italian pobrezari buruz argitaratutako artikulu eta liburu garrantzitsuei buruzko argibidea aurki daiteke.

5. Espainian azken urteotan gai honi buruz azaldutako ikerketa interesgarrienak ezagutzeko ikus Carasa 1992.

6. Hein handi batean artikulu honetan izkiriatzen dena nire doktorego-tesiaren laburpen bat da (Gracia 1990). Orain dela bi urte tesi honen zati bat liburu batean argitaratu zen: Gracia 1993. Jakina, artikulu motz honetan ikerketa honen laburpen sintetiko bat baino ez da ematen, nahitaez argudio batzuk eta informazio asko sinpleturik; beraz, irakurleak gai honi buruzko interes handiagoa edukiz gero, goian aipatutako liburura jo dezake. Halaber, artikulu honetan aipu bibliografikoak ahalik eta gehien murrizten saiatu gara, eta aipatutako ikerketotan aurki daitezke iturri artxibistiko eta bibliografiko guztiak.

Bestalde, aro hartako eskaleen adinari dagokionez, Bizkaiko kasuan behartsu zahar anitz zegoela aipa daiteke, eta aldiz oso eskale gutxi zirela umeak. Europako behartsuen testuinguruarekin alderatuz gero, azken datu hauek arras atipikoak direla aitortu beharra dago, europar eskaleen artean zahar gutxiago eta askoz haur gehiago aurkitzen zirelako⁷. Aspektu atipiko hau azaltzea ez da batere erraza, baina agian bazeukan zerikusirik garai hartan Bizkaian izandako famili-egiturarekin. Bizkaiko foruaren arabera familia bakoitzean oinordeko bakarra zegoela kontutan izanik, gainontzeko seme-alabak egoera txarrean gera zitezkeela aipa daiteke. Zahartzaroan pertsona hauek lan egiteko gauza ez zirenean, behartsu bihurtu ahal zirelako hipotesia ez litzateke inondik inora zentzugabekoa. Hurrei dagokienez, Erregimen Zaharraren bukaeran Bizkaiko Aldundia ume abandonatu eta txiroak babesteko neurri batzuk hartzen hasi zela esan behar da, eta beharbada gizarte-laguntza honen ondorioz, gero eta haur-eskeketasun gutxiago azaltzen zen. Dena dela, eta hipotesi eztabai-dagarri hauek alde batera utzita, hurrengo taulan ikusten da nolakoa zen Bizkaiko populazio behartsuaren banaketa 1828. urtean:

BIZKAIKO ESKALEAK 1828. URTEAN

Zaharrak	% 55a
Gaixoak	% 25a
Alargunak.....	% 10a
Umeak	% 7a
Beste egoera batzuk	% 3a

Beste aspektu bati helduz, Bizkaiko populazio osoaren barruan honako

pobre hauei zegokien portzentaia oso txikia zela azpimarratu behar da, gehien jota behartsuok populazio osoaren % 2a baitziren. Garai hartan Europako beste lurraldeetako portzentaia hau gutxien jota % 5ekoa zela aintzat hartuz gero, argi ikusten da Bizkaian agertutako behartsuen kopurua guztiz atipikoa zela. Are gehiago, Erregimen Zaharrean European zegoen pobrezia ikertu duten historialariek normalean portzentaia hau % 10ekoa zela baieztatu dute, eta abagune ekonomikoak txarrera egiten zuenean kopuru hau askoz altuagoa zen⁸. Ez da batere erraza hain pobre gutxi zergatik zegoen garai hartan Bizkaian azaltzea, baina historialari batzuek adierazi dute Erregimen Zaharraren bukaeran Euskal Herriko gune batzuetan –zenbait demografi estrategiaren bitartez– ongizateko gizarte-mota bat hedatu zela, eta hemengo populazioari zegokion bizi-maila nahiko altua zela. Aspektu hau guztiz frogatuta ez badago ere, tesi honi jarraituz gero Bizkaiko pobreen kopuru baxua azal liteke. Lurralde honetan behartsuen kopurua beti txikia izan bazen ere, XIX. mendearen hasierako hamarkadetan zeharo handitu zen, bakarrik hogeitertan bikoiztu egin baitzen. Xehetasun hau kontutan hartzea arras garrantzitsua da, gizartean izandako baztertuen kopurua bikoizten baldin bada, baztertu hauek sor ditzaketen arazo sozialak larritzen ari direla pentsatzea jendeak normala delako. Gero ikusiko dugun legez, honako portaera hau izan zen garaiko elite politikoak erakutsi zuena.

Errola hauetan pobreei buruz agertutako datuak alde batera utzita, eskale batzuei buruz argibide gehiago

7. Ikus, adibide gisa, Rose 1972, Hufton 1974, Gutton 1974 eta Woolf 1986.

8. Aspektu honi dagokionez, ikus daiteke Geremek 1974.

daukagula esan behar da. Alegia, XVIII. mendean indarrean zeuden alferkeriaren aurkako legeak zirela kausa, behartsu asko gartzelaratuak izan ziren, eta ondoren Bizkaiko korrejidoreak epaitzen zituen. Hau zela eta, eskale hauei buruzko agiri anitz kontserbatu dira; hurrengo lerroetan informazio hau analizatuko dugu.

Agiri judizial hauen garaia kontutan hartuz gero, hiru epealdi (1700-1725, 1726-1775, 1776-1808) bereiz daitezke, eta eskaleen erdiak hirugarren epealdian izan zirela atxilotuak azpimarratu behar dugu. Eskaleen aurkako epaiketak XVIII. mendearen azken hamarkadetan kontzentratuta egotea ez da kasualitatez suertatzen, baizik eta zergati ekonomiko, sozial eta politikoko batzuegatik. Modu honetan, XVIII. mendearen bukaeran egoera ekonomikoak txarrera egin zuenean, behartsuen kopurua handitu, eta honen ondorioz, beraiek nozitutako atxilotetak ere ugaltu zirelako hipotesia eman dezakegu. Horrela, Bizkaiko nekazarien egoera zeharo larritu eta laborari anitz pobretu zenez, ez zen arraroa nekazari hauetariko batzuk eskale bihurtzea; gertaera hau XVIII. mendearen gainerako hamarkadetan askoz gutxiago agertu zen. Baina, Erregimen Zaharraren bukaeran nekazarien egoerak txarrera egin ez ezik, gainontzeko sektore ekonomikoetan ere (adibidez, burdingintzan eta merkataritzan) antzeko zerbait gertatu zen, eta honen ondorioz pobreen kopurua gehitu egin zen. Faktore sozioekonomiko hauek kontutan hartzeaz gain, eskaleen atxilotetak zergati politikoko batzuegatik areagotu zirela azpimarratu behar da. Aspektu honi dagokionez, 1775. urtean Espainiako monarkiak *Real Ordenanza de Vagos* izeneko indarrean jarri zuen; hau zela eta, Espainia osoan gero eta eskale gehia-

go izan ziren gartzelaratuak. Gertaera hau azaltzeko asmotan, Espainiako historia politikoari buruzko zenbait aipu egin behar da. Esquilacheren matxindada suertatu ostean, Espainiako monarkia eskaleen aurkako neurriak hartzen hasi zen, errebolta horretan baztertuek era garrantzitsu batean parte hartu zutelako ustetan. Honez gain, XVIII. mendearen bukaeran nazioarteko politika nahastu zenez, Espainiako armadak gero eta gizon gehiago behar zituen eta eskaleak nahitaezko soldadu merkeak izan zitezkeela pentsatu zen; horrela, behartsuen altxada militarrek areagotu ziren; aldeberean, botere politikoa, baztertuek sor zituzaketen arazo sozialak gutxituko zirelakoan zegoen.

Legislazio honen arabera Bizkaian epaituak izan ziren eskaleen ezaugarriak aztertuz gero, ia guztiak (% 97a) gizonezkoak eta ia erdiak (% 45a) 25 urtetik beherakoak zirela ikusten da. Lehen izkiriatu duguna kontutan hartuz, hau ez da batere harrigarria, Espainiako armadak soldadu gazteak behar zituelako. Euren sorterri geografikoari dagokionez, erdiak bizkaitarrak ziren, haietariko asko Bilbon eta hiri honen inguruko elizateetan (Begoña, Deustu eta Abandon) jaioak. Bizkaitarrak ez ziren eskaleei zegokienez, erdiak euskaldunak ziren, batez ere Gipuzkoatik etorriak; beste erdiak espainiarrak ziren, haietariko gehienak Burgosen jaioak. Atxilotutako eskale hauen ogibideari dagokionez, %25a nekazaria eta beste %25a artisaua zen, eta gainerakoak ondoren aipatuko ditugun iharduera berezietan arituak.

Aspektu kuantitatibo hauek alde batera utzita, hurrengo lerroetan XVIII. mendeari dagozkion agiri judizial hauen arabera behartsuek zeukaten bizimodua aztertuko dugu. Epaiketa

hauetan eskaleok aitortzen zutenari jarraituz, euren famili-testuinguruari buruzko zenbait argibide ezagutu ahal dugu. Esate baterako, atxilotuak izan ziren eskaleok oso famili-harreman txarrak izan ohi zituzten, eta kasu askotan euren arazo familiarrak haurtzaroan hasten ziren. Batzuk haur abandonatuak ziren, euren gurasoak ezagutu ez zituztenak; beste batzuk umezurtzak ziren, gurasoak hil zirenean miseria gorrian aurkitu eta euren bazterretako bizimoduari hasiera eman ziotenak. Beste alde batetik, eskaleok familia bateko kide zirenean, gainerako etxekoekin oso harreman zailak eduki ohi zituzten, zenbaitetan gurasoak alkoholikoak baitziren edota, beste zergati batzuegatik, etxeko liskarrak arruntak baitziren; hau da, euren bizitzaren aurreneko urteetan gurasoen aurka agertzen ziren, haurtzarotik hasita ere eskale anitz nagusien aurka azalduz. Hau kontutan hartzea garrantzitsua da, gero eskale hauek agintean zeuden pertsona edo erakundeekin jokaera berbera erakutsi zutelako. Behartsuok helduak zirenean, etxeko portaera ezegonkor hauek errepikatzen ziren; honela, gizon hauek ezkonduak zirenean, sarritan emazteekin gatazkak zituzten, eta hau gertatu ondoren batzuetan etxetik ihes egiten zuten, emakumeak bertan behera utzita. Dena den, famili-eredu txar honetan salbuespen bat azaltzen da, gaztaroan pertsona hauek askotan anaiekin harreman onak izan ohi baitzituzten, anaiarteko elkartasun sendoa agertuz. Eskaleen nortasuna azaltzerakoan, azken aspektu hau nahikoa adierazgarria izan liteke, kontutan hartzen badugu euren geroko bizi-ibilbideetan “elkartasun horizontalak” erakusteko gaitasun handia izan ohi zutela.

Pobreen soziabilitateari dagokionez, itaunketa pairatzen zutenean atxilotutako arlosteek ez ohi zuten onartzen errepideetan beste lagun batzuekin ibiltzen zirenik, baizik eta normalean bakarka joaten zirela esaten zuten. Beste pertsona batzuekin zeudenean atxilotuak izanez gero, eskaleek azpimarratu ohi zuten ez zutela aspalditik elkar ezagutzen. Euren adiskideak arestian taberna, ospitale edota errepide batean ezagutu zituztela aitortzen zuten. Hortaz, eskaleok beste behartsu batzuekin zeuzkaten harremanak ez zirela iraunkorrak aldarrikatzen zuten. Jakina, baliteke aitorten hauek faltsuak izatea baina, egia esateko, ez zuten kasu honetan gezurrik esateko inolako ziorik, batez ere maiz lapurreta edo beste delitu batzuetan aritzea onartzen zutela kontutan izanik. Hau dela eta, ingeles baztertuek zeukaten soziabilitate-eredua oso antzekoa zela frogatu duela historiografiak aipa daiteke⁹, frantses eskaleen arteko soziabilitate-eredua guztiz bestelakoa bada ere. Frantziako historiografiaren arabera, Erregimen Zaharrean herri horretako eskaleak oso antolatuta zeuden, eta haien artean gizarte paralelo bat –eta gainera guztiz hierarkikoa– zegoen. Honez gain, Frantziako eskaleek kultur mota berezi bat izan omen zuten, eta ondorioz, besteak beste, oso hizkuntza bitxia –*argot* delakoa– erabiltzen zuten¹⁰. Bizkaiko kasuan –beti agiri judizial historikoetan agertzen denari jarraituz– ez zen horrelakorik azaltzen, hemengo eskaleen testuinguru soziokulturala erabat ezberdina baita.

Bizkaian atxilotatutako behartsuei dagokienean, dirua lortzeko era ezberdin batzuk zituztela aipa daiteke, beraiek epaileari aitortzen ziotenaren

9. Ingalaterrako eskaleen soziabilitateari buruz, ikus Beier 1974 eta Slack 1974.

10. Ikus Kaplow 1972 eta Chartier 1974.

arabera, erdiak ogibide arrunta zuten nekazal jornalariak edo hiri artisauak baitziren. Baina beti esaten zuten zenbait zio zela kausa (langabezia, gaixotasuna, zahartzaroa...) ezin zirela nahi zuten bezala iharduera errespeta-garri hauetan aritu, eta bizi ahal izateko eskeketasuna zela euren aukera bakarra. Honez gain, atxilotutako arlote askok ogibide berezietan zihardutela aitortzen zuten; esate baterako, batzuk merkatari ibiltariak edo kinkilariak ziren, beste batzuk txatarrariak... Atxilotutako behartsu batzuk ez ziren inoiz inolako ogibidetan arituak, beti ere limosna eskatzea izan baitzen euren iharduera bakarra. Bizkaiko eskaleek urtean zehar limosna eskatzeko aukera apropos batzuk zituzten, hau da, udan herri askotan ospatzen ziren erromerietan eta Aste Santuan Bilbon antolatzen ziren ospakizunetan bildu ohi ziren behartsu anitz, egun hauetan irabazpen onak lortzeko probabilitatea askoz handiagoa zela baitzekiten. Gai honi buruz beste datu adierazgarri bat eman daiteke, alegia, beste lurralde batzuetatik (esate baterako, Gaztelatik) etorritako zenbait eskalek, Bizkaian euren herrietan baino askoz limosna gehiago lor zitekeela eta hau zela hona etortzeko kausa aitortzen zuten. Honez gain, atxilotutako behartsu batzuek lapurketan aritzen zirela onartzen zuten, baina lapurketa hauek oso xumeak izan ohi ziren, normalean fruituak, beste jaki batzuk edo zenbait txanpon bakarrik ohosten zituzten eta. Goian izkiriatu dugun legez, alferkeriaren aurkako legeak hautsi zituztelako izan ziren gartzelaratuak eskale hauek; honek suposatzen zuen lan egin beharrean, beste iharduera batzuetan aritzen zirela. Honela, epaile eta fiskalek pentsatzen zutenaren

arabera, atxilotutako eskaleok tabernetan, kartetan edota galerazitako beste jokoetan ematen zuten denbora, baina beraiek behin eta berriro ideia honi uko egiten zioten, eurak ere –gainerako pertsonak egiten zuten modura– lantzean behin libertzitzen zirela besterik ez onartuz. Dena den, azken aspektu honi buruz jende arruntak oso iritzi bestelakoa zeukan, eta bat zetozen aipatutako legegizonekin. Honez gain, arloteei buruz beste herri-estereotipo bat zegoen; honen arabera, bere portaera sexuala ez zela batere egokia esaten zen, ezkondata ez zeuden arlote anitz emakumeekin ibili ohi ziren eta. Akusazio hauen azpian inbidia-apur bat zegoela soma daiteke, gainerako jendeak gogor lan egiten zuen bitartean, behartsuok nahi zutena egiten zutela pentsatzen zelako.

Lehen aipatutako aspektu bat berriro hartuta, baztertuak maiz agintarien kontra agertzen ziren, eta familian erakutsitako errebeldiari jarraituz, gero eskolara joatekoan maisuek agindutakoa ez zuten askotan onartzen, gatazka anitz eragiten zutelarik. Artisau-ogibideetan ihardutekoan, gizon hauek apendizak zirenean maisuen aurka agertu ohi ziren, eta ondorioz sarritan ihes egiten zuten¹¹. Ofizial bihurtuz gero, ez ziren normalean batera esanekoak, eta liskarrak eragiteaz gain, ez zituzten euren zereginak burutzen. Honez gain, pertsona hauek udal-agintariekin zeuzkaten harremanak txarrak izan ohi ziren, legeak agintzen zuena onartzen ez zutelako, eta era berean abadeekin arazo asko izan ohi zituzten mezataria ez joategatik edota gainerako kristau-eginkizunak ez betetzeagatik. Beraz, errebeldia zen behartsu askoren joerarik

11. Aspektu konkretu honi buruz ikus daiteke Gracia 1991a.

nabarmenena, aspektu honetan herri xumeak normalean edukitako portaera nahikoa ezberdina baitzen. Jakina, boterea zeukatenean arabera, hainbat eskalek erakutsitako portaera hau erabat onartezina zen, eta honen ondorioz baztertuta geratzen ziren.

Irakurleak ikusi ahal duen legez, azken lerro hauetan eskaleen eta beste talde sozial batzuen portaerak kontrajarri ditugu. Ildo honi jarraituz, hurrengo orrialdeetan eskale eta arloteei buruz gainerako sektore sozialek esaten zutena sakonkiago aztertuko dugu. Hortaz, baztertuei buruz garai hartako elite politikoak izandako pentsamoldea analizatzen hasiko gara¹². Dena dela, aspektu hau ikertu baino lehen, elite politiko hau osatzen zutenei buruz zer edo zer esatea komeni delakoan gaude. Honi buruz asko idatzi ahal bada ere, elite hau gizarte-talde bik eratzen zutela aipa daiteke: alde batetik, Bizkaiko nekazal mundua menderatzen zuten jauntxoak eta beste alde batetik Bilboko merkatal burgesia handia; delako eliteek Aldundia eta Batzar Nagusiak erabat kontrolatzen zituzten. Egia esan, jarraian idatziko dugunak garai hartako Aldundiak eta Batzar Nagusiek eskaleei eta arloteei buruz gauzatutako dekretuetan agertzen dena hartuko du oinarritzat.

Sektore sozial hauek pobrezari buruz zeukaten mentalitatea guztiz tradizionala zenez, euren ustez limosna eskatzea bidezkoa zen, puntu honetan ohizko karitate kristauak agindutakoari erabat jarraituz. Dena den, eliteak zeukan mentalitatearen arabera, pobre guztiek ezin eska zezaketen limosna; bertako behar-

tsuek bakarrik zeukaten horretarako eskubidea. Hau da, eskaleok beraiek jaio ziren herrietan baino ezin zuten limosna eskatu eta beraz beste herri batzuetan eske ibiliz gero, euren iharduera guztiz legez kanpokoak zen. Dekretu hauen arabera, udal agintariek kanpoko behartsuek burututako eskekotasuna galarazi behar zuten, eskaleok euren herrira eramanez. Orohar XVIII. mendean Bizkaiko elite politikoak eskekotasunari buruz hartutako neurriak orain esandakoan laburtu ahal badira ere, garai hartako Aldundiak eta Batzar Nagusiek baztertuei buruz gauzatutako dekretuetan hiru epealdi desberdin bereiz daitezke.

Lehenengo epealdian (1700-1726) baztertuei buruzko dekretu ugari agertu baziren ere, Aldundiak eta Batzar Nagusiek hartutako neurriek oso kutsu tradizionala zuten, legislazio honetan batik bat arlote eta ijitoen aurkako erabakiak aldarrikatzen baitziren, XVII. mendean zegoen joerari jarraituz; oster, dekretu hauetan ez ziren artean eskaleak aipatzen, eta mentalitate kristau tradizionalak erabat ziraue-la erakusten zen. Dekretu gehienak bi abagune konkretutan azaldu ziren: alde batetik, Oinordeko Gerratearen urteetan eta, beste alde batetik, 1718ko matxinadaren osteko garaian. Jakina, hau ez zen kasualitatez gertatu baizik eta zergati soziopolitiko konkretu batzuegatik. Oinordeko Gerrateari dagokionez, Armadak soldadu anitz behar zuenez, Bizkaiko elite politikoak aldarrikatutako dekretuek helburu zehatz bat zuten, alegia, baztertuak nahitaezko soldadu bihurtzen saiatzea. Honez gain, gerratea zela egoera ekonomikoa zeharo larriztearen kausa kontutan hartu behar da eta honen

12. Artikulu honetan pobrezari buruz elite politikoak zeukan mentalitatea aztertzean, ideia asko sinpletu behar dugu. Argibide gehiago edukitzeko, ikus Gracia 1989.

ondorioz baztertuen kopurua handitu bide zen, eta haien aurkako sentikortasuna areagotu. Aitzitik, 1718ko matxinadaren osteko garaian testuinguru historikoa oso bestelakoa izan zen; abagune horretan Bizkaiko botere politikoek baztertuek erreboltan partaide-tza handia eduki zutela pentsatu zuten¹³, erraz azaltzen da zergatik agertu zen behartsuon kontrako dekretu ugari.

Bigarren epealdiari (1726-1766) dagokionez, Foru-botere politikoek baztertuen aurka ezer gutxi burutu zuten; honela, Espainiako monarkiak honi buruz aldarrikatutako legiazioa Bizkaian indarrean jartzeaz gain, hemengo elite politikoa ez zen ia-ia gai honetaz arduratu. Jarrera hau azaltzeko asmoz, berriro ere ekonomi koiunturaren eragina aipatu beharrean gaude, epealdi honetan bai nekazaritzan, bai burdingintzan eta bai merkataritzan garapen garrantzitsua agertu baitzen; hau zela eta, pobrezia gutxitu bide zen, eta baztertuen kopurua eta beraiek sortutako arazoak murriztu.

Hirugarren epealdian (1766-1808) berriz Aldundiak eta Batzar Nagusiek behartsuen kontrako dekretu asko aldarrikatu zuten. Neurri hauek beti ere helburu berbera zeukaten, alegia, kanpoko eskaleak euren herrira itzultzeko agintzen zuten, dekretu hauen bitartez eliteak arrote eta beste behartsu batzuk gauzatutako ustezko delituak (lapurreta, batez ere) gutxitu ahal zirela pentsatuz. Egia esan, elite politikoak emandako irtenbidea ez zen batere eraginkorra: askotan euren herrietan behartsuek behar zuten gizarte-laguntza ezin eskura zezaketez gero, berriro ere limosna eskatze-ira irteten ziren. Honez gain, elite

politikoak dekretu guztietan aipatzen zuen zeintzuk ziren bidezkoa ez zen eskeketasunaren hedapenaren erantzuleak, gai honetan udal agintariak erakusten zuten arduragabekeria salatuz. Halaber foru-dekretu hauek kanpoko eskaleek ospitale, burdinola eta taberna askotan aurkitu ohi zuten babesa zigortzen zuten. Azken aspektu hau kontutan hartzea garrantzitsua da, herri xeheko pertsona batzuek behartsuekin edukitako solidaritate-mota bat erakusten zuelako, bide batez Erregimen Zaharrean izandako errealitate bat adieraziz: herri xumea osatzen zutenek, miseria gorrian bizi ez baziren ere, bazekiten posible zela ezbehar bat (gaixotasuna, zahartza-roa, langabezia...) zela medio eurak pobre bihurtzea, eta ondorioz beraiek ere beste pertsona batzuek eman ahal zieten laguntza behar izatea. Honez gain, Bizkaiko Aldundiak eta Batzar Nagusiek gauzatutako dekretu batzuetan beste ñabardura esanguratsu bat agertzen zen, kanpoko eskaleen aurkako salaketak bultzatzen baitziren, hau egiten zutenei diru-sariak eskainiz.

Foru-neurri hauek behin eta berriro errepikatzen zirenez, euren eginkortasun eza soma daiteke. Egia esan, XVIII. mendean Bizkaiko Foru-botere politikoak polizia egokirik ez zeukanez gero, neurri hauek sarritan hitz soilak baino ez ziren, dekretu hauek praktikan jarri behar zituztenek –hots, udal-agintariak– betetzen ez zituztelako.

Bizkaiko elite politikoak baztertuei buruz zeukan pentsamoldea erabat tradizionala zela ikusi dugu. Ordea, euskal ilustratuek pobrezia buruz idatzitako izkribuetan oso mentalitate bestelakoa –hain zuzen ere, askoz modernoagoa– aurkitzen da. Gai honi

13. Olaechea 1979.

buruz azalpen zehatzagoak eman aurretik, pobrezia aztertu zuten ilustratu hauek batik bat ekonomilariak zirela aipatu behar da. Egia esan, garai hartako testuinguru historikoari dagokiola, "ekonomilari" hitza erabiltzea hein handi batean anakronikoa izan daitekeela aitortu beharrean gaude, Uztariz, Arrikibar, Heros, Foronda... eta pobreei buruz izkiriatu zuten gainerako ilustratuak prestakuntza teorikorik gabeko arbitristak baino ez zirelako. Era honetan, idazle burges hauek helburu bat besterik ez zuten: garapen ekonomikoa areagotzeko asmotan, botere politikoa zeukatenei neurri praktiko batzuk proposatu nahi zizkieten, Erregimen Zaharrea luzaro izandako tradizio bati jarraituz. Pobrezia-ziari zegokionez, ekonomilari ilustratu hauen ustez eskekotasunak gizarte-egundoko kaltea egiten zion, lan egiteko gauza ziren eskaleek gizarteak ematen zien karitatea merezi ez zutelako. Argudio honi jarraituz, euskal merkantilista batzuek gizaki guztiak (itsuak, ankamotzak, zaharrak, umeak... ere) ahal zuten neurrian lan egitera behartuta zeudela pentsatzen zuten. Jakina, pentsamolde honek erakunde aproposak sortzea suposatzen zuen, goian aipatutako pertsonen baldintza egokietan lan egin zezaten.

Azken finean, ilustratu hauen iritzi eskekotasuna gizarte-patologia bat baino ez zen, eta euren asmoa gaixotasun hura behin betirako desagertaraztea zen. Azken aspektu honi dagokionean, euskal ekonomilari ilustratu batzuek izugarritzko baikortasuna erakusten zuten, merkataritza eta industrializazioa garatu ahala, pobrezia erabat desagertuko zelakoan. Honenkin batera, eskekotasunak sortzen zituen arazoak amaituko ziren baina, jakina, itxaropen hau etorkizun urrun batean baino ez zen suertatuko. Beste

ilustratu batzuek (esaterako, Manuel Agirre), ideologia erradikala eta aurrerakoa erakutsiz, pobrezia ezbidetzko gizarte baten ondorioa zela pentsatzen zuten, eta azken finean ezberdintasun sozialek zirauten bitartean behartsuak izango zirelako ustea azaltzen. Era berean mentalitate aurrerakoi honi jarraituz, gizarte-baztertasunarekin agertu ohi ziren arazoak (lapurreta, prostituzioa eta gainerako delituak) pobrezia-aren ondorioak baino ez zirela izkiriatu zuten zenbait ekonomilari ilustratuk, eta gizarte-egiturak aldatu ezean, arazo hauek iraungo zutelakoan zeuden.

Dena den, azken iritzi aurrerakoi hauek salbuespenak ziren, gainera beti testuinguru hipotetiko batean planteatuak. Baina errealitate praktikoari so eginez, pobrezia eta eskekotasuna desager zitezten, euskal ilustratuen ustez aukera bat besterik ez zegoen, alegia, hospizioak eraikitzea, Europako beste nazio batzuetan izandako ereduari jarraituz. Hospizioak sortzean, bi helburu nagusi lor zitezkeela pentsatzen zuten. Alde batetik, kalean izandako eskekotasuna eta honen ondorioz jendea suertatutako eragozpenak erabat desagertuko ziren. Beste alde batetik, garai hartan Ingalaterran eta beste herri batzuetan gertatzen zen moduan, hemengo hospizioetan behartsuen lan-esku merkea aprobe-txa zitekeen, eta honela baldintza egokietan pobre guztiak (elbarrituek, zaharrek eta umeek ere) lan egin ahal izango zuten. Hala ere, euskal ilustratu aurrerakoi batzuen iritzi, eskekotasunaren azpian zegoen koxka askoz sakonagoa zen: behartsuen ohiturak aldatu ezean, pobrezia sortutako arazoak ez zirelakoan desagertuko zeuden. Hau zela eta, hospizioetan pobreek heziketa egokia jaso ondoren, egoera hau hein handi batean alda

zitekeen, baina euskal ilustratu batzuek helburu hau lortzea guztiz zaila zela izkiriatzen zuten. Izan ere, pobreak ospizioetara behartuta joanez gero, erakunde hauek espetxe bihur zitezkeen, eta baldintza hauetan lehen aipatutako heziketa-helburuak ezin izango ziren lortu. Argudio honi jarraituz, zenbait pentsalari liberalek aipatzen zuen espetxeetan egon ondoren eskaleek gainerako presoek –alegia, lapurrek eta beste gaizkile batzuek– burututako krimenak ikasten zituztela eta era berean ospizioetan gazte eta haurrek eskale helduek emandako adibide txarrak imitatu ahal izango zituztela. Nolanahi ere, euskal ilustratu burges batzuek pentsatzen zuten behartsuen ohitura desegokiak benetan aldatzeko, ospizioetara borondatez joan behar zutela, eta kasu honetan bakarrik izan zitezkeela erakunde hauek eraginkor.

Argi ikusten denez, pobrezia buruz zenbait euskal ilustratuek adierazi zuten jarrera oso modernoa zen, eta era honetan bere pentsamoldean garaiko aroari dagozkion mentalitate batzuk azaldu zirela esan dezakegu¹⁴. Aitzitik, garai hartako herri-mentalitateak aztertzean, oso testuinguru ezberdina aurkitzen da, kutsu arkaiko bat zeharo nagusituz.

Dena den, herri xeheak behartsuekin adierazitako jarrera analizatu baino lehen, aurretiaz mentalitate hauek ezagutzeko erabili ditugun agiri historikoei buruzko zehaztasun batzuk azaldu beharrean gaude. Bizkaiko elite politikoak eta euskal burgesia ilustratuak pobreei buruz pentsatzen zutena agiri eta izkribu askotan aztertu ahal bada ere, herri xumeari dagokionez ez da

inondik inora horrelakorik suertatzen. Honela pobrezia buruzko herri-mentalitateak ikertzeko asmotan, saihesbide bat erabili behar izan dugu. Izan ere, jende arruntak honi buruz pentsatzen zuena ezagutzeko zaila izan arren, herri txikietan udal-agintarien pentsamoldea oso antzekoa zela soma daiteke, eta honela gure ikerketan udal-agintea zeukaten pertsona hauek behartsuei buruz idatzitakoa hartu dugu herri-ikuspuntuetara hurbiltzeko oinarritzat. Jakina, prozedura hau erabiltzean, distortsio bat agertzea saihestezina dela aitortu behar da, baina gai honi dagokiola herri mentalitatea aztertzeko beste modurik ez dagoelakoan gaude.

Pobrezia buruzko herri-pentsamoldea ezagutzen dugun heinean, herri xeheak bi eskale-mota bereizten zituela esan daiteke: “benetako pobreak” eta “pobre faltsuak”. Erdi Aroan eta Erregimen Zaharrean luzaro izandako tradizio bati jarraituz, benetako pobreak limosna eskatzeko eskubidea zutenak ziren, ezbehar bat zela kausa lan egin ezinik. Kontzeptu honen barruan behartsu-mota asko sar zitezkeen: zaharrak, gaixoak, umezurtzak, alargunak, langabezian zeudenak... Azken pertsona hauei zegokiela, Bizkaiko herri askotan izandako arazo latz bat aipa daiteke, alegia, udal-agintari batzuen esanetan herri hauetako nekazal jornalariak maiz kale gorrian zeuden, zenbait hilabetetan behar egiteko aukerarik ez zutelako.

Honez gain, XVIII. mendeari dagozkion agiri historiko batzuen arabera, herri askotako jende xeheak ez zuen kanpoko behartsuen aurka inolako bereizkeriarik egiten, eta eurak

14. Benefizentzari buruz euskal ilustratuek pentsatzen zutena hobeto ezagutzeko, Gracia 1988a ikus daiteke.

benetako pobreak baziren, limosna ematen zitzairen. Jakina, goian izkiriatu dugunari jarraituz, herri-jarrera horrek Bizkaiko elite politikoak kanpoko eskaleen kontra burututako legislazioa ez betetzea suposatzen zuen, baina, dirudienez, honek ez zion jendeari axola handirik ematen. Honela, herri txikietako baserrietan bai bertako bai kanpoko behartsuek harrera ona aurkitu ohi zuten, jende xumeak beraiei limosna edota janariak eman ez ezik, bere etxeetan gaua igarotzea ere baimentzen zelarik. Dena den, Erregimen Zaharraren bukaeran –hots, XIX. mendearen estreineko hamarkadetan– jarrera eskuzabal hau erabat aldatu zela ematen du, herri xehearen mentalitatea isladatzen den agirietan kanpoko behartsuen aurkako jarrera gogorra argi ikusten baita. Aldakuntza hau era egoki batean azaltzea zaila bada ere, garai hartako krisialdi ekonomiko latzak gertaera honetan eragin handia eduki zezakeela soma daiteke.

Goian aipatutako pobre faltsuei zegokienez, honako hau esan daiteke: Erregimen Zaharrean izandako tradizioaren arabera, pobre hauek, lan egin ahal izan arren, gainerako pertsonen lepotik bizi nahiago zuten alferrak ziren, honela benetako pobreei zegokien karitatea aprobetxatuz. Izan ere, dauzkagun agiri historikoetan izkiriaturakoari jarraituz, herri xeheak eurek gauzatutako eskeketasuna txartzat jotzen zuela pentsa daiteke. Dena den, XVIII. mendeko izkribuetan ia herri guztietako udal-agintariek euren herrietan inolako pobre faltsurik ez zela aipatzen zuten, beraien ustez Bizkaiko herrixka gehienetan alferkeria

guztiz ezezaguna izan ohi zelarik. Gertaera hau azaltzeko asmotan, udal agintariek herri txikietan –hirietan ez bezala– nekazaritza iharduera bakarra zela esaten zuten, eta testuinguru sozio-ekonomiko horretan ez zegoen alferkeria agertzeko aukerarik. Honez gain, udal-agintea zeukatenen ustez, herrixka hauek errepedeetatik urrun zeudenez gero, arloteak ez ziren haietara hurbiltzen. Halaber udal izkribu hauetan beste zehaztasun bat aipatzen zen: herrixka hauetako baserriarrek euren senide edota lagun pobreekin elkartasun handia erakusten zuten, azken finean benetako behartsuek beti ere behar zuten laguntza aurkitzen zuten. Ikusten den moduan, herri-mentalitatean karitate kristauak hedatutako eredu zaharrek egundoko eragina zuten, ilustrazioak bultzatu nahi zuten modernitatea erabat ezezaguna zelarik.

Hainbat sektore sozialek pobreziari buruz erakusten zituzten mentalitateak ikusi ondoren, garai hartako pobreek eduki ahal zuten gizarte-laguntza aztertuko dugu¹⁵. Aspektu honi dagokionean, Bizkaian XVIII. mendean hiru gizarte laguntza mota bereiz daitezke: behartsuen ospitaleak, udaletxeek emandakoa eta zenbait hospiziotan garatutako benefizentzia.

Behartsuen ospitaleek ez zeukaten gaur egungo eritetxeekin zerikusirik, gehienetan ospitale izeneko hauek aterpeak baino ez zirelarik. Erdi Aroko tradizio bati jarraituz, aterpe hauetan pobreek gaua igarotzeko aukera zeukaten. Dena den, behartsuen ospitale-mota batzuk bereiz daitezke.

15. Gai honi buruz Euskal Herriko historiografian gutxi argitaratu bada ere, oso artikulu interesgarria irakur daiteke: Madariaga 1993. Bizkaiko kasuari dagokiola, liburu honetan neuk ere artikulu txiki bat argitaratu nuen: Gracia 1993. Honez gain, liburu honetan Gernikako benefizentziaren historiari buruzko *Gernika Zarra Historia Taldea*-k burututako ikerketa bikain batzuk aurki daitezke.

Era honetan, ospitale sinpleenak zirenetan gizarte-laguntza oso murriztuta zegoen, haietan kanpoko pobreek bakarrik gaua igaro ahal zutelako; hau dela eta, ospitale hauek Erdi Aroko erromesek edukitako gizarte-laguntzaren ereduari jarraitzen ziotela aipa daiteke. Honez gain, beste ospitale-mota batean nahiz kanpoko nahiz bertako behartsuek gaua igaro ez ezik, janaria ere jasotzen zuten, egunean zehar ospitaletik kanpo limosna eske ibiltzen zirelarik. Hiribildu batzuetan (Balmasedan, Durangon, Urduñan...) gizarte-laguntza sofistikatuagoa gauzatzen zen, hiri hauetako ospitaleek goian aipatutako zerbitzuak emateaz gain, mediku edota botikari baten esku zegoen osasun-laguntza eskaintzen baitzuten. Hala ere, ospitale hauetan azken aspektua ez zen inondik inora garrantzitsuena, han izandako pobre gehienak gaixorik ez zeuden behartsuak baitziren. Egia esan, garai hartako Bizkaian eritetxe bat –Bilbon izandakoa– baino ez zen, eta ospitale honetan gaur egungo ereduaz azaltzen da. Honela, Bilboko ospitaleak medikuak, erizainak eta botika-zerbitzuak zituen, eta bere laguntza gaixoek bakarrik jasotzen zuten.

Dena den, Bilboko eritetxea salbuespen bat zen, eta ospitale gehienak normalean lau edo bost behartsu bakarrik ostatatu ahal ziren etxetxoak ziren. Hain sinpleak zirenez gero, erraz ulertzen da zergatik egon zitekeen hainbeste ospitale (gutxi gorabehera, hogeita hamar) garai hartako Bizkaian. Normalean hiribilduetan izateaz gain, ospitale gehienak probintziaren ekialdeko gunean kokatuta zeuden; honela Enkarterrietan eta Uriben hamar ospitale besterik ez zeu-

den. Gainera, ia Bizkaiko ospitale guztiak errepideetatik gertu zeuden, eta benetan datu hau oso adierazgarria da. Ospitale hauen sorrerari dagokionez, hiru bakarrik –Ziortza, Balmaseda eta Gernikan izandakoak– ziren Erdi Arokoak, XVI. mendean, aldiz, bost edo sei ospitale berri sortu zirelarik. Honela, XVIII. mendean izandako ospitale gehienak XVII. mendean izan ziren eraikiak. Aspektu honi dagokionean, Bizkaiko kasua oso arrunta zela esan beharra dago: Erreforma Katolikoaren ondorioz, hainbat naziotan ermita eta ospitale anitz sortu ziren; gertaera hau karitate barrokoaren adibide bat zen. Hala ere, Bizkaiko ospitale hauek beste zentzu batean nahikoa atipikoak ziren, batez ere garaiko Espainian izandakoekin parekatuz gero; hau da, Espainiako ospitale gehienak Elizaren menpe zeuden bitartean¹⁶, Bizkaikoak udal-erakundeak ziren. Gertaera hau ondo azaltzea zaila bada ere, agian aspektu atipiko hau Bizkaian udal-botereak izandako izugarritzko indarrari lotu ahal zaiola pentsa daiteke.

Beste gai bati oratuz, XVIII. mendearen bukaeran Bizkaiko ospitale gehienak oso egoera larrian zeudela aipatu behar da. Honela, euren erai-kuntzek arazo latzak zituzten, batzuetan paretak ere erortzeko zorian baitzeuden. Gainera, XVIII. mendearen azkenengo hamarkadetan ospitaleetako mahai eta oheak zaharrituta egon ez ezik, ez zen beraietan sarritan altzari eta maindire berririk erosten. Egia esan, denbora joan ahala, erakunde hauen egoera gero eta larriagoa zen eta beraiek eskaini ahal zuten laguntzak erabat txarrera egin zuen. Egoera latz hau azaltzea ez da batere zaila, ospitale askok oso diru-

16. Gai honi buruz, ikus Carasa Soto 1985.

-sarrera txikiak (urtero 100 edo 200 erreal) zeuzkatela kontutan hartzen badugu. Hortaz, XVIII. mendean pobreen aldeko gizarte laguntzan kontraesan bat zegoela azpimarratu ahal da: behartsuen kopurua gehitzen zen heinean, ospitaleek pobreei eman ahal zizkieten zerbitzuak gero eta urriagoak ziren. Are gehiago, XIX. mendearen hasierako hamarkadetan egoera honek txarrera egin zuen, Godoy-k agindutako desamortizazioa eta gerratearen ondorioz ohizko ospitaleen baldintzak gero eta larriagoak izan zirelako.

Dena den, ez da pentsatu behar inoiz ospitale hauek behartsuen alde gauzatutako laguntza oso handia izan zirenik. Goian esan dugun legez, sarritan erakunde hauek behartsuei gaua igarotzeko aukera baino ez zieten ematen. Honez gain, janaria eskaintzen zietenean, oso sinplea zela esan beharrean gaude, behartsu gaixoek bakarrik jasotzen zituztelako elikagai onak (haragia eta ardoa). Zenbait ospitaleek euren etxeetan egon nahiago zuten behartsu batzuei ere elikagaiak edota diru-kopuru txikiak ematen zizkien, pobre hauek –“pobres vergonzantes” zeritzatenak– publikoki limosna eskatzen ausartzen ez zirelako. Honez gain, goian aipatu ditugun Aldundiak burutatutako dekretuak betetzeko asmotan, ospitale batzuk kanpoko behartsuak euren herrietara eramateaz arduratzen ziren. Azkenengoz, Bizkaian XVIII. mendean zenbait ospitale itxi zirela aipatu behar da. Kasu hauetan udal-agintariek ordena publikoa mantentzeko erabaki drastiko hori derrigor hartu behar izan zuten,

ospitaleotan benetako behartsuak izateaz gain, gaizkile edota lapurrak ere biltzen zirelako.

Pobreen alde udalek antolatutako gizarte-laguntzari dagokionez, ospitalerik ez zegoen herrietan udalak arduratzen zirela pobreziaz esan behar da. Gai hau aztertzerakoan, behartsuei emandako laguntzak askotan sinbolikoak eta eragin gutxikoak izan zitezkeela aipa daiteke. Modu honetan, urtean zehar ospaturiko zenbait festatan (Gabonetan, esaterako) udal batzuek herriko behartsuei diru-laguntzak edota jakiak eskaintzen zizkieten. Erregimen Zaharrean European ohitura hau oso arrunta zen eta bere helburua pobreak ere komunitatearen barne sentitzea zen. Laguntza sinboliko hauek alde batera utzita, beste udal-laguntza mota batzuk aipa daitezke. Esaterako, XVIII. mendean herri bakoitzeko udal-erakundeak haur abandonatuez arduratzen ziren, inudeak ordaindu eta hilabete batzuk pasa ondoren Zaragozako ospitalera eramanez. Egia esan, prozedura hau ez zen batere eraginkorra, ume abandonatuei zegozkien heriotza-tasak ikaragarriak ziren eta. Egoera hau konpontzeko asmoz, XVIII. mendearen bukaeran Bizkaiko Aldundia gai honetaz arduratzen hasi zen, arazo hau zeharo hobetuz¹⁷.

Honez gain, udal-erakundeek beste behartsu batzuei ere laguntza ematen zieten. Garai hartako eraikuntzak egurrezkoak zirenez, baserriak erretzea nahiko gertaera arrunta izan ohi zen, euren jabeak miseria gorrian utziz. Udal batzuek arazo hauetaz ere arduratzen ziren, ezbeharrak hori paira-

17. Azken aspektua beste lan batzuetan aztertu dut; ikus Gracia 1991. Dena den, Euskal Herriko historiari dagokionez, haur abandonatuei buruzko ikerketarik interesgarriena burutu duena L. Valverde izan da; bere lanen artean *Sociedad, mentalidades e infancia abandonada en Guipúzcoa y Navarra, siglos XVIII y XIX* (1992) azpimarratu behar da.

tzen zutenei laguntza emanaz. Baserri bat berriro eraikitzeko diru dexente behar zenez gero, sarritan hurbil zeuden herri batzuek elkarri laguntza emateko akordioak sinatzen zituzten. Beste kasu batzuetan, udalek herriko txiroei diru-laguntzak eskaintzen zizkieten, zenbait egoera tamalgarri konpontzen saiatuz. Gizarte-laguntza honen bitartez, neurri txiki batean bazen ere, gaixoak, alargunak, zaharrak edo umezurtzak ziren pobre batzuen egoera hobetu ahal zen.

Orain arte aztertu ditugun gizarte-laguntza motak karitatezko eredu baten barruan sar daitezke; Erregimen Zaharrean nahiz ospitaleek nahiz udalek pobreen aldeko neurriak burutzean, doktrina kristauak agintzen zuena baino ez zuten betetzen. Baina XVIII. mendearen bukaeran beste gizarte-laguntza mota bat agertu zen, hain zuzen ere ilustrazioak hedatutako ideiak oinarritzat hartuz. Honela, garai hartako Bizkaian ohizko karitatea gauzatu beharrean, benefizentzia praktikan jartzen saiatu ziren. Lehen ikusi dugun moduan, benefizentziak hospizioak sortzea suposatzen zuen, eta honela garaiko aroari dagokion gizarte-laguntza agertzen hasi zen. Erdi Aroan eta Erregimen Zaharrean benetako pobre guztiek jendeak eskaini ahal zien karitatea jasotzeko eskubidea bazeukaten ere, benefizentzia sortzearekin batera aldakuntza bat lortzen saiatu ziren: kaleko eskekotasuna guztiz desagertzea. Honela, orain direla urte batzuk frantziar idazle batek izkiriatu zuen bezala, benefizentziaren bidez burgesiak gauzatutako "bartzertze handia" hasi zen. Beraz, pentsamendu burgesaren arabera gizarteari kalte egin ahal zioten pertsonak leku berezietan sartu behar ziren, eta ezin ziren kalean ibili. Honen ondorioz, eroek zoroetxeetan egon behar

zuten bezala, pobreei hospizioetan egotea zegokien. Eredu hau Europan askoz lehenago sortu bazen ere, Bizkaian lehenengo hospizioak XVIII. mendearen azken hamarkadetan azaldu ziren. Hain zuzen ere, 70.eko hamarkadan lurralde honetan hospizio-sare bat burutzen saiatu ziren, zenbait hiribildutan –alegia, Balmaseda, Portugalete, Gernika, Urduña, Durango eta Bilbon– hospizioak sortuz. Egia esan, erakunde hauek arrakasta eskasa izan zuten, eta XIX. mendearen hasierako hamarkadetan Bilbon eta Durangon kokatuek baino ez zirauten. Edonola ere, hospizio hauek ez ziren udal-erakundeek edo Aldundiak gauzatutako ekimen baten bitartez sortu, baizik eta espainiar korrejidore batek –hain zuzen ere, José Joaquín Colón de Larreategi– egindako ahaleginei esker agertu ziren. Era honetan, politikari hau izan zen Bizkaiko hospizioak bultzatu zituen, goian aipatu ditugun hiribilduetako pertsonaia garrantzitsu batzuekin harremanetan jarri ondoren. Hospizioen bitartez kaleko eskaletasuna desager zedila bilatzen zen. Hau zela eta, erakunde hauetan izandako pobreek hezkuntza teknikoa jasotzeko asmoz, euren edifikazioetan tailerrak ipintzen saiatu ziren; era honetan, hospizioetatik irten ondoren behartsuek ogibide onestuetan ihardun zezaketen. Bestalde, hospizioen finantziarioari zegokionez, jendeak zuzenean eman ahal zizkien diru-laguntzak funtsezkoak izango zirela pentsatzen zen; gainera zenbait hiribildutan astean behin edo birritan hospizioko batzuek kaleetan erakunde hauen alde limosna eskatu behar zuten. Dirua eta elikagaiak eskuratu ez ezik, pobre hauek lehengai batzuk ere (lihoa, kalamua...) hartuko zituztelako iritzi baikorra zegoen; honela hospizioen tailerrak edukitako kostuak

murriztu ahal izango zirela uste zuten. Denbora pasa ahala, baliabide hauek ez zirela inondik inora nahikoak ikusi zen, eraginkorra zen hospizio bakarra –Bilbokoak– udal-laguntzari esker bakarrik mantendu ahal baitzen.

Hospiziokoen bizimoduari dago-kionez, erakunde hauek batez ere xede bat zeukatela gogoratu behar da, hau da, pobreen ustezko alferkeria desagertzea. Beraz, hospiziokoek –goizeko zazpitan esnatzen zirenetik gaueko zortzietan oheratu arte– lan-ordutegi luzeak nozitzen zituzten. Beraz ez zuten ia-ia astirik eta zituzten atsedenaldiak oso laburrak ziren. Honez gain, hospizioen bidez pobreen ustezko moral lasaia aldatzea bilatzen zenez, eraikuntza hauetan emakumezkoak eta gizonezkoak erabat bananduta zeuden. Noski, hau logeletan gertatzea ulergarria da, baina tailer, kapera eta jantokietan ere gauza bera suertatzen zen. Modu honetan hospizioetan oso soziabilitate berezia azaltzen zen, prozedura honen bidez pobreen ohitura desagokiak eraldatzen saiatzearren.

Hospiziokoen janariari zegokionez, normalean oso eskasa zela aipatu behar da. Honela izanda, ez zen arraroa –jakiak zirela eta– erakunde hauetan izandako behartsuak keXu agertzea. Gainera, eurek ezin zuten inola ere ardorik edan; debeku honen bitartez liskarrak galaraztea bilatzen zen. Egia esan, hospizioen ardura-dunek pobreen arteko borrokarik ez agertzea zuten helburu nagusi, eta gatazka hauek saihestearren, disziplina gogorra ezartzen zuten. Pobreak bihurriak eta erreboltariak zirela pentsatzen zenez, hiritar onak –hots, esanekoak– izan zitezten, hospizioetako esparru guztietan zigorra nagusitzen zen. Honela hospizioen arautegietan beti ere pobre onak eta txarrak

bereizten ziren. Ahal zen neurrian hospizioetako pobre onek sariak hartzen zituzten bitartean, pobre txarrei, ostera, zigorra baino ez zegokien, harik eta euren portaera aldatzea lortu arte. Gainera, hospizioen diru eza zela eta, ezin zitekeen behar beste jagole-rik ordain, eta bere zereginak askotan pobre on batzuek –“jefes de sala” izenekoek– betetzen zituzten.

Hospizioetan higiena zaintzea garrantzitsutzat jotzen zen eta erakunde hauetara sartzen ziren pobreen ohizko zikinkeria eraldatzen saiatzen ziren. Honela, egunero hospiziokoek aurpegia eta eskuak garbitu eta astean behin alkondarak aldatzeaz gain, hilean behin oinak garbitu eta maindireak aldatu behar zituzten. Hala ere, hospizioetako arautegien arabera higiena morala gorputzari zegokiona baino askoz garrantzitsuagoa zen eta aspektu horretan ere pobreen ohitura txarrak desagertarazten saiatzen ziren. Era honetan, hospiziokoek egunero errosarioa esateaz gain, astean behin dotrina ikasi eta hilero konfesatu behar izaten zuten. Arau dakroniar hauen bidez behartsuen portaerak hobetzen saiatu arren, helburu hauek guztiz utopikoak zirela esan behar da. Zigor eta disziplinaren bitartez lortzen zena azalezko aldaketa baino ez zen; tes-tuinguru honetan ulertzen da zergatik hospizioetako asko ihes egiten ahale-gintzen zen, horrela askatasuna berreskuratuko zutelakoan.

Beraz, hasiera-hasieratik benefizentziak hein handi batean porrot egin zuela baieztatu daiteke, eta XIX. eta XX. mendeetan hospizioek lortutako arrakastak txikia izaten jarraitu zuela azpimarratu beharra dago. Honela, kasu honetan berriro ere errepresioaren bitartez lor zitezkeen hobekuntzak zeharo mugatuak direla erakutsi da.

Bibliografía

- Aydelotte, F. (1913): *Elizabethan Rogues and Vagabonds*, Oxford.
- Beier, A. L. (1974): "Vagrants and social order in Elizabethan England", *Past & Present*, 64, 3-29.
- Bloch, C. (1908): *L'assistance et l'Etat en France à la veille de la Revolution*, Paris.
- Carasa Soto, P. (1985): *El sistema hospitalario español en el siglo XIX*, Valladolid.
- (1992): "La historia de los pobres: de las bienaventuranzas a la marginación", *Historia Social*, 13, 77-100.
- Chartier, R. (1974): "Les Elites et les gueux. Quelques représentations (XVIe-XVIIe siècles)", *Revue d'Histoire Moderne et Contemporaine*, XXI, 376-388.
- Faraggiana, (1908): *Pauperismo e beneficenza*, Torino.
- Fowle (1881): *The Poor Law*, Londres.
- Geremek, B. (1974): "Criminalité, vagabondage, pauperisme: la marginalité à l'aube des temps modernes", *Revue d'Histoire moderne et contemporaine*, XXI, 337-385.
- Gracia, J. (1988a): "Entre el humanitarismo y la represión: Las actitudes de los ilustrados vascos sobre los hospicios y las Casas de Misericordia", *Letras de Deusto*, 41, 97-106.
- (1988b): "Caridad y beneficencia en Vizcaya en los siglos XVIII y XIX", in Askoren artean, *El Asilo Calzada de Gernika-Lumo, 1892-1902*, Gernika, 15-19.
- (1989): "Fueros y marginación social: el control de la mendicidad y el vagabundaje en el Señorío de Vizcaya (1700-1833)", *Estudios de Historia Social*, 48/49, 115-165.
- (1990): *Pobreza y marginación social en Vizcaya (1700-1833)*, Deustuko Unibertsitatea, mikrofitxetan.
- (1991a): "Un ejemplo del conflicto social en el artesanado de Bilbao: las fugas de aprendices (1600-1900)", *Cuadernos de Sección Historia-Geografía Eusko Ikaskuntza*, 18, 109-122.
- (1991b): "Mentalidad popular y actitudes de las élites ante la infancia abandonada en Vizcaya al final del Antiguo Régimen", in Askoren artean, *Euskal Herriaren Historiari Buruzko Biltzarra*, Donostia, III. alea, 483-493.
- (1991c): "Los niños expósitos vizcaínos durante el primer tercio del siglo XIX", *Letras de Deusto*, 51, 169-180.
- (1993a): "Caridad y beneficencia en Vizcaya en los siglos XVIII y XIX", in Askoren artean, *El Asilo Calzada de Gernika-Lumo, 1892-1902*, Gernika, 15-19.
- (1993b): *Mendigos y vagabundos en Vizcaya (1766-1833)*, Bilbo.
- Gutton, J. P. (1974): *La société et les pauvres en Europe (XVIème- XVIIIème siècles)*, Paris.
- Hernández Iglesias, F. (1876): *La Beneficencia en España*, Madril.
- Hubert-Valleroux, P. (1890): *La Charité avant et depuis 1789 dans les campagnes de France*, Paris.
- Hufton, O. W. (1974): *The poor of the Eighteenth Century France, 1750-1789*, Oxford.
- Jones, C. (1982): *Charity and bienfaisance. The treatment of the poor in the Montpellier region, 1740-1815*, Cambridge.
- Kaplow, J. (1972): *The names of Kings: The Parisian laboring poor in the Eighteenth century*, New York.
- Lallemand, L. (1902): *Histoire de la Charité*, Paris.
- Leonard, E. M. (1900): *The Early History of English Poor Relief*, Cambridge.
- Luchini (1894): *Le istituzioni pubbliche de benefienza nella legislazione italiana*, Florentzia.